

## BIZITZA IKASI

### Herriko hezkuntza publikoaren eskaintza hauspotzeko kanpaina martxan

- **Honen bitartez, herrian dauden 6 zentro publikoak gertutik ezagutu eta bertan matrikulatzera animatu nahi ditu herritarrak**

**Andoainen, 25-01-16.-** Aurki abiatuko da 2025/26 ikasturteko hezkuntzako etapa ezberdinetan matrikulatzeko garaia. Horrela, apropos prestatutako kanpaina baten bitartez, herriko hezkuntza publikoa hauspotzeko kanpaina prestatu du Andoaingo Udalak.

Horren bitartez, eskaintza publikoak dakartzan onurak balorean jarri nahi ditu Udalak. Publikoak beti dakar gertutasuna, aniztasuna, zintzotasuna, pluraltasuna... Publikoan matrikulatzea haurren eta pertsonen behar eta onuretan pentsatzea da.

Kanpainak 'BIZITZA IKASI' izango du lelo nagusia, eta besteak beste, irudikatu nahi da eskolan ikasten badugu zer den bizitza, eskolak bizitzaren ahalik eta antz handiena izan beharko lukeela. Hezkuntza publikoa, bizitza bezala, estutxe handi bat bezalakoa baita: ez dago perfektua den ezer; ezberdina da, anitza, mota askotako materiala biltzen duena. Ez dago ondo ezabatzen duen borragomarik, ez dago ondo zorrotzen duen zorrozgailurik, ondo mozten duen guraizerik, ondo margotzen duen errotulagailurik... baina gogo asko dago estutxe horretan: gogo asko ikasteko, bata besteari laguntzeko. Beti egongo da zorrozgailuan trabatuta geratu den arkatz punta askatzeko klip bat, edo boligrafoarekin gaizki idatzitakoa ezabatzen lagunduko duen tipex-a... Bizitzarako ikasgaiak izango ditugunez asetzen laguntzen digu Hezkuntza publikoak.

Eta hori guztia, euskaraz. Hala ulertzen baitugu bizitza: euskaldun eleaniztunez osatuko den jendartea.

Andoainen hezkuntza publikoko eskaintza zabala dugu etapa guztietan:

- Galardi haurreskola: 0-2 urte bitarte
- Ondarreta Herri Eskola: 2-12 urte bitarte
- Leitzaran institutua: 12-16 urte bitarte (+ lanbide heziketako aukera)
- Helduen Hezkuntza (18 urtetik gora)
- Oinarrizko Lanbide Heziketa (15-18 urte bitarte)

Udalak andoaindarrak animatu nahi ditu herrian ditugun hezkuntza aukera publikoak gertutik ezagutu eta bertan matrikulatzera. Publikoan ikastea, bizitza ikastea delako.